MUNDUENEA
MUNDUKO IPUINEN ETXEA

EID AL FITR-EKO OPARIA

هدية عيد الفطر



LABAYRU FUNDAZIOA

AUDIO LIBURUA

IPUINA ENTZUN

استمع إلى القصّة

Munduenea, munduko ipuinen etxea online

www.munduenea.labayru.eus

© LABAYRU FUNDAZIOA. 2022
EDITOREA: LABAYRU FUNDAZIOA (ZIORTZA ARTABE, IGONE ETXEBARRIA, AKAITZE KAMIRUAGA ETA BIOSNE ZARANDONA)
COLON DE LARREATEGI 14, 2. ESK. 48001 BILBO
WWW.LABAYRU.EUS

JATORRIZKO TESTUA: ABDELKADER DERMACHE - عبدالقادر درماش
JATORRIZKO HIZKUNTZAKO AHOTSAK: ABDELKADER DERMACHE - عبدالقادر درماش
NOHAILA EL YOUBI - نهيلة اليوبي , HASNA KARIMI - حسناء كريمي
TESTUEN MOLDAKETA ETA AHOTSA EUSKARAZ: YOLANDA ARRIETA
ILUSTRAZIOAK: ENRIQUE MORENTE
MAKETAZIOA: BIKO KOMUNIKAZIOA
INPRIMATEGIA: GERTU
I.S.B.N: 978-84-19063-07-6
LEGE GORDAILUA: BI 01388-2022

LAGUNTZAK: EGITASMO HONEK BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN ETA EUSKO JAURLARITZAREN LAGUNTZAK JASO DITU.

Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.cedro.org, 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

EID AL FITR-EKO OPARIA



هدية عيد الفطر

LabayruFundazioa



Arabiera munduko bosgarren hizkuntzarik mintzatuena da. Ofiziala da hogeita sei herrialdetan, euren artean Aljeria, ipuin honen jatorri-herria. Arabierak 30 aldaeratik gora ditu, baina eskoletan arabiera estandarra irakasten da.

اللغة العربية هي خامس لغة منطوقة في العالم. إنها رسميّة في اثنين و عشرين دولة ، بما في ذلك الجزائر ، حيث نشأت هذه القصة. تحتوي اللّغة العربية على أكثر من 30 لهجة ، و لكن يتمّ تدريس اللّغة العربيّة الفصحى الحديثة في المدارس


EUSKAL HERRIA
LIBANO
SIRIA
TUNISIA
PALESTINA
IRAK
KUWAIT
MAROKO
QATAR
JORDANIA
ALJERIA
LIBIA
ARABIAR EMIRERRI BATUAK (EAU)
EGIPTO
SAHARA
SAUDI ARABIA
MAURITANIA
OMAN
SUDAN
YEMEN
DJIBOUTI
SOMALIA
KOMOREAK

Islamiarrek hilabeteko baraualdia egiten dute urtero:
jan gabe egoten dira, eguzkia ateratzen denetik sartu arte.
Ramadana deitzen zaio hilabete horri.

يَصُومُ المُسْلِمُونَ شَهْرًا وَاحِدًا فِي كُلِّ عَامٍ: لاَ يَأْكُلُونَ وَ لاَ يَشْرَبُونَ
مِنْ شُرُوقِ الشَّمْسِ إِلَى غُرُوبِهَا. هَذَا الشَّهْرُ يُسَمَّى رَمَضَانَ



Ramadana amaitzean, hiru egunez Eid al Fitr izeneko jaia ospatzen dute. Familian elkartzen dira, elkar zoriontzen dute eta janaria banatzen dute pobreen artean. Opariak ere egiten dituzte.

فِي نِهَايَةِ شَهْرِ رَمَضَانَ، وَ لِمُدَّةِ ثَلاَثَةِ أَيَّامٍ يَحْتَفِلُ الْمُسْلِمُونَ بِعِيدِ الْفِطْرِ. تَجْتَمِعُ الْعَائِلاَتُ، وَ يُهَنِّئُونَ بَعْضَهُمُ الْبَعْضَ، وَ يُوَزِّعُونَ الْأَطْعِمَةَ وَ الْهَدَايَا وَ يَتَصَدَّقُونَ عَلَى الْفُقَرَاءِ



Aspaldian, ama batek hiru alaba zeuzkan; eta, pobreak izan arren, hirurei oparia egin nahi zien. Eta galdetu zien:

—Hamar dinar aurreztu ditut aurten. Zer nahi duzue Eid al Fitr-erako?

كَانَتْ هُنَاكَ أُمٌّ لَدَيْهَا ثَلاَثُ بَنَاتٍ. وَ عَلَى الرَّغْمِ مِنْ أَنَّهُنَّ كُنَّ فَقِيرَاتٍ ،
فَقَدْ حَاوَلَتِ الْأُمُّ أَنْ تَمْنَحَ كلاًّ مِنْهُنَّ هَدِيَّةً. فَسَأَلَتْهُنَّ

لَقَدْ وَفَّرْتُ عَشَرَةَ دَنَانِيرَ فِي هَذِهِ السَّنَةِ. مَاذَا تُرِدْنَ أَنَ أَشْتَرِيَ لَكُنَّ فِي عِيدِ الْفِطْرِ؟“





Salwak, nagusienak, erantzun zuen:

—Nik eskumuturrekoa nahi dut!

Monak, erdikoak:

—Nik pilota!

Hudak, txikienak:

—Nik panpina!

Amak, etsita, erantzun zien:

—Ez daukat hirurontzako beste diru.





قَالَتْ سَلْوَى الْكُبْرَى

"!أُرِيدُ سِوَارًا"

مُنَى الْوُسْطَى

"أَنَا أُرِيدُ كُرَةً"

هُدَى الصُّغْرَى

"!أَنَا أُرِيدُ دُمْيَةً"

أَجَابَتْهُنَّ الْأُمُّ وَ هِيَ فِي حَيْرَةٍ

"أَنَا لاَ أَسْتَطِيعُ أَنْ أَشْتَرِيَ لَكُنَّ جَمِيعًا"

Kezkatuta igaro zuen eguna. Izan ere, opari bakarra erosteko dirua baino ez zeukan, eta ez zekien zer egin.

أَمْضَتِ الْيَوْمَ وَ هِيَ مُتَوَتِّرَةً، حَيْثُ لَمْ يَكُنْ لَدَيْهَا مَالاً كَافِيًا سِوَى لِشِرَاءِ هَدِيَّةٍ وَاحِدَةٍ، وَ لَمْ تَكُنْ تَعْرِفُ مَاذَا تَفْعَلُ





Azkenean, txikienari erostea erabaki zuen.

وَ فِي النِّهَايَةِ ، قَرَّرَتْ شِرَاءَ الْهَدِيَّةَ لِأَصْغَرِهِنَّ

Esnatu zenean, Hudak oparia ikusi zuen burkoan:

—Nahi nuena!

Panpina hartu eta berarekin jolasten hasi zen.

Bat-batean, ordea, amak esandakoaz gogoratu zen,
eta ahizpek ez zeukatela ezer ikusi zuen.



عِنْدَمَا اسْتَيْقَظَتْ هُدَى وَجَدَتْ الْهَدِيَّةَ عَلَى الْوِسَادَةِ

"!هَذِهِ الدُّمْيَةُ التِي أَحْلُمُ بِهَا دَوْمًا"

أَخَذَتِ الدُّمْيَةَ وَ بَدَأَتْ تَلْعَبُ بِهَا

لَكِنَّهَا تَذَكَّرَتْ مَا قَالَتْهُ لَهَا وَالِدَتُهَا وَ رَأَتْ أَنَّ شَقِيقَتَيْهَا لَيْسَ لَدَيْهِنَّ شَيْئًا





Ziztu bizian joan zen Huda dendara.
—Monak nahi duen pilotagatik aldatu nahi dut panpina —azaldu zion dendariari.
Pilota hartu eta etxera itzuli zen.
Gauean jaiki eta mahaiaren gainean utzi zion ahizpari.

ذَهَبَتْ هُدَى إِلَى الْمَتْجَرِ عَلَى عَجَلٍ

قَالَتْ لِصَاحِبِ الْمَتْجَرِ: "أُرِيدُ أَنْ أَسْتَبْدِلَ الدُّمْيَةَ بِالكُرَةِ التِي تُرِيدُهَا مُنَى "

أَخَذَتِ الْكُرَةَ وَ عَادَتْ إِلَى الْمَنْزِلِ

قَامَتْ لَيْلاً وَ تَرَكَتِ الْكُرَةَ عَلَى الطَّاوِلَةِ لِأُخْتِهَا



Mona esnatu zenean:

—Hara! Nahi nuena!

Baina, ahizpekin gogoratu zen bera ere, eta ohartu zen haiek ez zutela ezer jaso.



عِنْدَمَا اسْتَيْقَظَتْ مُنَى

"هَذَا رَائِعٌ! الْكُرَةُ لَطَالَمَا حَلَمْتُ بِهَا!"

لَكِنَّهَا تَذَكَّرَتْ أَيْضًا شَقِيقَتَيْهَا وَ أَدْرَكَتْ أَنَّهُنَّ لَمْ يَتَلَقَّيْنَ شَيْئًا



Dendara joan zen, bada.

—Salwak nahi duen eskumuturrekoa emango didazu pilota honen ordez, mesedez?—galdetu zion dendariari.

Dendariak eman egin zion, eta berak gau-mahaian utzi zion ahizpari.

فَقَرَّرَتْ أَنْ تَذْهَبَ إِلَى الْمَتْجَرِ

هَلْ تُعْطِينِي السِّوَارَ الذِي تُرِيدُهُ سَلْوَى
بَدَلاً مِنْ هَذِهِ الْكُرَةِ مِنْ فَضْلِكَ؟

سَأَلَتْ صَاحِبَ الْمَتْجَرِ

أَعْطَاهَا صَاحِبُ الْمَتْجَرِ السِّوَارَ،
وَ تَرَكَتْهُ لِأُخْتِهَا عَلَى الطَّاوِلَةِ







Salwa itzartu zenean, jakina, asko poztu zen:

—Nahi nuena!

Oparia eskumuturrean ipini zuenean, ordea, pentsatu zuen: «Amak denontzat ez badauka, ahizpek ez zuten ezer jasoko».

Hala zela baieztatu zuenean, dendara joan zen bera ere.

—Hudak hainbeste gura duen panpinagatik aldatu nahi dut eskumuturrekoa —esan zion dendariari.

Eta, gauean, panpina utzi zion ahizpa txikiari ohean.

عِنْدَمَا اسْتَيْقَظَتْ سَلْوَى، بِطَبِيعَةِ الْحَالِ، كَانَتْ سَعِيدَةً لِلْغَايَةِ

"!هَذَا الذِي أَحْلُمُ بِهِ دَوْمًا"

لَكِنْ عِنْدَمَا وَضَعَتِ الْهَدِيَّةَ عَلَى ذِرَاعِهَا، فَكَّرَتْ: إِذَا لَمْ يَكُنْ لَدَى وَالِدَتِي نُقُودًا لِشِرَاءِ هَدَايَا لَنَا جَمِيعًا، أَنَا مُتَأَكِّدَةٌ أَنَّ أَخَوَاتِي لَمْ يَتَحَصَّلْنَ عَلَى أَيِّ شَيْءٍ

عِنْدَمَا تَأَكَّدَتْ مِنْ ذَلِكَ، ذَهَبَتْ أَيْضًا إِلَى الْمَتْجَرِ

"قَالَتْ لِصَاحِبِ الْمَتْجَرِ: "أُرِيدُ اسْتِبْدَالَ السِّوَارَ بِالدُّمْيَةِ التِي تُحِبُّهَا هُدَى كَثِيرًا

وَ فِي اللَّيْلِ تَرَكَتِ الدُّمْيَةَ فِي سَرِيرِ أُخْتِهَا الصَّغِيرَةِ



Dendaria harrituta zegoen nesken portaeragatik, eta amari galdetu zion:

—Zergatik aldatu dituzte opariak zure alabek?

Andreak ez zuen ezer ulertzen.

—Kontatuko didazu, mesedez, zer gertatu den?




تَفَاجَأَ التَّاجِرُ بِسُلُوكِ الْفَتَيَاتِ ، فَسَأَلَ وَالِدَتَهُنَّ
"لِمَاذَا تَبَادَلَتْ بَنَاتُكِ الْهَدَايَا؟"
لَمْ تَفْهَمْ الْمَرْأَةُ أَيَّ شَيْءٍ
"هَلْ يُمْكِنُكَ أَنْ تُخْبِرَنِي بِالذِي حَدَثَ؟"

Begiak bete zitzaizkion amari gertatutakoa jakin zuenean.
Eta alabak hain bihotz onekoak zirela ikusita, barru-barrutik esan zuen:

—Esker mila, Allah, ume eskuzabal hauek emateagatik!

امْتَلَأَتْ عَيْنَا الْأُمِّ بِالدُّمُوعِ عِنْدَمَا اكْتَشَفَتْ مَا حَدَثَ. وَ
لَمَّا رَأَتْ بَنَاتَهَا لَطِيفَاتٍ قَالَتْ مِنْ أَعْمَاقِ قَلْبِهَا
" أَشْكُرُكَ يَا اللهُ عَلَى إِعْطَائِي هَؤُلَاءِ الْبَنَاتِ الْكَرِيمَاتِ ! "



Dendariak auzokideei kontatu zien gertatutakoa.
Eta orduantxe jakin zuten denek nola bizi ziren ama-alabak:
pobre baina elkar maitez.

أَخْبَرَ صَاحِبُ الْمَتْجَرِ الْجِيرَانَ بِمَا حَدَثَ

وَ فِي ذَلِكَ الْوَقْتِ، عَلِمَ الْجَمِيعُ كَيْفَ تَعِيشُ الْأُمُّ وَ بَنَاتِهَا:
بِتَوَاضُعٍ وَ مَحَبَّةٍ لِبَعْضِهِنَّ الْبَعْض





Hala bada, ate-joka joan ziren guztiak ama-alaben etxera:

—Kox-kox!

Atea zabaltzean, ene! Herri bete lagun, opariz gainezka!



فَقَامَ جَمِيعُ الْجِيرَانِ بِالطَّرْقِ عَلَى بَابِ بَيْتِ الْأُمِّ وَ الْبَنَاتِ:-دَقْ دَقْ

قَامَتْ الْأُمُّ بِفَتْحِ الْبَابِ يَا إِلَهِي! تَفَاجَأَتْ بِعَدَدٍ كَبِيرٍ مِنَ الْجِيرَانِ الطَّيِّبِينَ مُحَمَّلِينَ بِالْهَدَايَا



Harrezkero, halaxe diote ama-alaba haien herrian:

—Eid al Fitr-erako oparirik ederrena? Elkarri laguntzea, dagoena partekatzea eta batak bestea zaintzea. Hitz batean: MAITASUNA.



مُنْذُ ذَلِكَ الْحِينِ، فِي قَرْيَةِ هَذِهِ الْعَائِلَةِ ، يُقَالُ مَا يَلِي

أَجْمَلُ هَدِيَّةٍ فِي عِيدِ الْفِطْرِ؟ سَاعِدُوا بَعْضَكُمُ الْبَعْضَ ، شَارِكُوا مَا هُوَ مَوْجُودُ وَ اعْتَنُوا بِوِحْدَتِكُمْ. بِكَلِمَةِ الْحُبّ



MUNDUENEA
MUNDUKO IPUINEN ETXEA

*Munduenea. Munduko ipuinen etxea*n hamar ipuin batu ditugu, gure artean bizi diren kultura ezberdinetako hiztunei jasota. Bilduma 6-10 urte bitarteko umeei zuzenduta dago. Inguruko kultura eta hizkuntza aniztasunak dakarkigun aberastasuna ipuinen bidez erakustea da helburua. Jatorrizko hizkuntzan eta euskaraz entzun eta irakurri ahal izango dituzu. Munduko ipuinen etxera sartu nahi?



عبارة عن مجموعة من عشر قصص، من العديد من الثقافات التي تتعايش في بيئتنا، وتستهدف الأولاد والبنات الذين تتراوح أعمارهم بين 6 و 10 سنوات. من خلال القصص تهدف إلى إظهار الثراء الذي يجلبه لنا هذا التنوع في الثقافات واللغات. ادخل إلى بيت القصص واكتشفها باللغة الأصلية وفي لغة الباسك


MUNDUENEA
HITZA HITZ
A PALABRA É A PALABRA


MUNDUENEA
DEABRUAREN ZUBIA
EL PONT DEL DIABLE


MUNDUENEA
GIZON ABERATSA
ایک امیر آدمی


MUNDUENEA
KATU ARTISTAK
LES CHATS ARTISTES


MUNDUENEA
MATSU, ITSASOKO JAINKOSA
妈祖，海上之神


MUNDUENEA
DORTOKA ZEKENA
IJAPA OLOJUKOKORO


MUNDUENEA
ZORIONTSU IZATEKO GAKOA
CAABI NGIR AM MBËKTE


MUNDUENEA
TXILIBITU MAGIKOA
FLUIERAȘUL MAGIC


MUNDUENEA
CAIPORA



9 788419 063076

LabayruFundazioa